



LINFOGAMMAGRAFIA – MELANOMAN GONGOIL ZELATARIA HAUTEMATEA

MEDIKUNTZA NUKLEARRA

ZER DA LINFOGAMMAGRAFIA ISOTOPIKOA?

Tumore batzuetako drainatze linfatikoa bistaratzeko azterketa bat da. Hala, trazatzailea iristen den lehenbiziko gongoila non dagoen jakingo dugu. Gongoil horri zelatari deitzen zaio.

Gongoil hori aurkitzeak —lehenbizi, Medikuntza Nuklearrean, eta, gero, ebakuntza barnean (kirofanoan) zunda bidez— prozesuko tratamendua aldaraz dezake.

PROBA EGITEKO EGUNA:

Baraurik etorri behar duzu **BAI** **EZ**

ZERTAN DATZA?

Proba egiteko, kontraste bat injektatuko dizugu lesioaren zonan. Horren ondoren, berehala, azterketa egingo dugu, bi pausotan: Lehenak 30 minutu iraungo du; bigarrena injekzioa jarri eta 2-3 ordu igarotakoan egingo dugu, eta 15 bat minutu iraungo du.

Azterketa amaitutakoan, kirofanora eramango zaitugu, ebakuntza kirurgikoa egiteko. Ebakuntzan, gongoil zelatariaren kokapena zehaztuko dugu —lehen esan bezala, horrek geroko tratamendua aldaraz dezake—.

Proba hau kontraindikatu dago emakume haurdunentzat.

Bularra ematen ari bazara, bertan behera utzi behar duzu edoskitzea proba egiten zaizunetik 24 ordu igaro arte.